



Ekaitz Saralegi: «Partida bukaeran denak zutik jarri, eta une hunkigarria izan zen»

Aimar Olaizolak lau t'erdiko txapelketatik kanpo utzi du pilotaria; amezketarra gustura geratu da txapelketan eman duen mailarekin **6**

tolosaldeko

ataria

galtzaundi

TOLOSALDEKO hitza

Txokorre
Irratia

Asteartea, 2013ko abenduaren 3a. 1. urtea. 35. zenbakia. www.ataria.info



Antalis enpresa itxi nahi du zuzendaritzak

Ostegunean eman zieten Albizturko enpresa itxiko dutenaren abisua langileei; Endaki eta Marie Brizard enpresak ere egoera larrian daude **4-5**



Antalisko 39 langileek enpresa ez itxeko borroka egingo dute. m. i.

Euskara eguneroko tresna bilakatu nahian

Gaur Euskararen Nazioarteko Eguna da eta eskualdeko hainbat herritan euskara goratu eta haren erabilerak handiagoa izan behar duela azaltzeko jarduerak izango

dira. Gaurko egunari aurrea hartuz, Tolosan, larunbatean ospatu zuten Auzolan Festa. Hainbat eragilek, elkar-lanean, festa eta aldarrikapena egin zituzten. **2-3**

tolosaldeko ataria

ataria
internet

ataria
prentsa

ataria
irratia

Egin zaitez atarikide!

943-65 56 95
atarikide@ataria.info

Euskaraz bada, hobe



Eguraldiari aurre eginez ospatu zuten, larunbatean, Tolosako Auzolan Festa. Dantzan aritu ziren batzuk, eta bestek batzuek, kantuan nahiz musika joz girotu zuten. Gaur ere hainbat jarduera izango dira. I. G. L.

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, ospakizun eta aldarrikapenek bat egiten dute eskualdean

I. URKIZU/I. TERRADILLOS **TOLOSA**

Hainbat hamarkada igaro dira Fernando Aire Xalbadorrek *Nigarra begian* bertsoa idatzi zuenez geroztik. Egungo euskal gizartearen egunerokoa nabarmen aldatu da zenbait esparrutan, Xalbadorrenarekin alderatuta, baina haren hitzak irakurrita badirudi euskaldunen aldarriak ez direla gehiegi aldatu. Honakoa zion: *Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian / guretik deus ez duen hizkuntza mihian / sofritzen egoiten*

naiz horien erdian / gutaz ahalgetua, nigarra begian.

2013. urtean, oraindik ere, euskararen erabilera, euskara ahoan izatea, eta *euskaldun* hitza *euskardun* gisa ulertzea herritar askoren eguneroko helburua da. Horrela, gaurko Euskararen Nazioarteko Eguna urte osorako aldarri eta ospakizunak elkartzeko aukera izaten da.

Tolosaldeko ia txoko guztietan tarteren bat gordeko diote, gaur, euskara goratu eta haren erabilera

handiagoa izan behar duela azaltzeko jardueri. Horrela, udalek adierazpen insituzionalen bitartez harturiko konpromisoekin batera, dantza, musika, askariak, hitzaldiak eta antzekoak ez dira faltako, eskualdean.

Euskaraz auzolanean

Tolosako hainbat eragilek asteburuan uztartu zituzten festa eta aldarrikapena, eta hainbat hilabetez prestatzen aritutako Auzolan Festak girotu zituen herriko kaleak.

Pasa den ekaina inguruan elkartu ziren lehenengoz, eta talde bakoitzak hobekien egiten dakiena eman zion egitasmoari. Horrela, azaro osoan barrena hitzaldiak izan dira euskararen eta euskalgintzaren in-

guruan, eta larunbatekoa guztia birtzatzeko eguna izan zen.

Eguraldiak ez zien batere lagundu, eta goizeko kalejirak ezin izan zuen aurreikusitako bidetik joan; Erraldoi eta buruhandien konpartsari eragin zion gehien euriak, eta ezin izan zuten kalera irten.

Harituz bertsozaleen elkarguneko kideek, ordea, bat-bateko kantuan girotu zituzten Tolosako elkar-teak, eta beren ibilbidea osatu zuten. Eurekin batera, Tolosa Kantari, Tolosako Dultzaineroak eta Oargi txaranga ere kalez kale ibili ziren.

Era berean, Udaberri dantza taldeak ere ahal zuen moduan astindu zituen oinak. Lapurdiko inauteriei begira jarri, eta hemengo ikusleentzat hain ohikoak ez diren dantzak

prestatu zituzten Auzolanean festarako. Euriaren ondorioz, ordea, kalejira formatua plazara egokitu behar izan zuten, eta Berdura plazan eta Plaza berrian aritu ziren, aterpean.

13:00etan hitzordu berezia jarria zuten antolatzaileek, eta hasieratik aldarri izan duten *Euskaraz bizi nahi*

Auzolan Festako herri bazkarian 250 pertsona elkartu ziren

dugu lelotzat hartuta, giza-katea edo martxa abiatu zen Triangulotik, Alde Zaharrean barrena.

Euskara maitatzeaz harago, hitz

Euskararen Eguna

ALBIZTUR

ABENDUAK 3, GAUR

14:30. Euskarazko jokoetan jolas-tuko dira, eta ondoren, txokolatea.

ALEGIA

ABENDUAK 16, ASTELEHENA

18:00. Euskararen egoera eta etor-

kizuna Euskal Herrian eta Alegialdean hitzaldia eskainiko dute Jon Sarasuak eta Xabier Bengoetxeak, kultur etxean.

AMEZKETA

ABENDUAK 3, GAUR

11:30. Kultur etxean emanaldia eskainiko dute Zumadi ikastetxeko

gaztetxoek, herriko jendearentzat. 10 ikastaldeek abestiak, dantzak, bertsoak, ipuin musikatu bat eta antzezlan bat eskainiko dituzte.

ANOETA

ABENDUAK 3, GAUR

19:00. *Genero gramatikalik gabe-ko hizkuntza sexista izan al daite-*

ke? Hitzaldia, Irene Arrarats, *Berria* egunkariako euskara arduradunaren eskutik.

ASTEASU

ABENDUAK 3, GAUR

15:25. Kalejira eskolatik futbol zelairaino.

15:35. Txalaparta joaldia eta jaialdiaren aurkezpena.

15:40. Ikasleen Badu Badak.

16:00. *Behin betiko* eta *Bizi euskaraz* abestiak kantatuko dituzte guztiek.

16:10. Askaria.

BERASTEGI

ABENDUAK 3, GAUR

15:00. Azaroko abestien kantu saioa. *Dun Dun Dun Beasti euskaldun* leloa osatuko dute. 5. eta 6. mailako gaztetxoek bertsoa abestuko dute, eta gero, flashmob-a dantzatuko dute denek. Azkenik erromeria egingo dute.

16:00. Askaria frontoian.

17:00. Altxorraren bila eta haurrentzako hainbat joko.

18:00. Mintzodromoa eta kafe tertulia Gaztainondo elkartearen.

19:00. Abesti, bertso eta dantzatzeko aukera izango da udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

IBARRA

ABENDUAK 3, GAUR

09:15. Oihane Mateos kazetari eta ikasle ohiaren saioa, Uzturpe ikastolako areto nagusian, *Eman euskararen berri* lelopean.

09:30. HHko Argitxo erraldoiaren apainketa.

Ondoren. Txokolatea.

10:30. Haur Hezkuntzako ikasleentzat aurpegi margotzeak, eta DBHkoentzat, euskal kultura tailerreko tresna tradizionalen erakusketa.

14:30. Kantu Festa Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleek eskainia, Belabieta kiroldegian.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LAN BILA

Etxeko lanetarako: etxeko lanak egiteko edota haurrak zaintzeko, esperientzia handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Gainera, kotxea ere badauka, lanerarako edonora mugitu behar izanez gero. Interesa duen edonork jarraian datozen bi telefono zenbakietako batera dei dezake: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



Gutunak

TOLOSARREI, ESKER ONEZ

Auzolan festa bideratu dugun elkar-te eta taldeok, - Oargi, Ero-Etxe, Or-tzadar, Iurre, Lizardi, Batasuna, Udaberri, Harituz, Tolosako Konpar-tsa, Tolosako Dultzaineroak, Kazka-barra, Amaroazo Auzo Elkartea, Gal-tzaundi, Tolosa Kantari, Tolosa&Co-, eskerrak eman nahi dizkizuegu Au-zolan Festa burutzea ahalbidetu du-zuen tolosar guztiei.

Zuei esker arrakastaz gauzatu ahal izan da Auzolan festa: lau hi-tzaldi interesgarritan kultur etxeko aretoa entzulez gainezka; azaroa-ren 30eko egun beteko programan *Euskaraz Bizi nahi dugu* kalejira alaia, Tolosako Alde Zaharrean. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, to-losarren laguntzak erraz garaitu zuen eragozpen hori. Giro ederra eta alaia kalean; helduak, gazteak eta umeak kantuz, bizipozez; bertso po-teoa, herri bazkaria, haur jolasak, dantzaldia...

Eskerrik asko elkarlanean aritze-gatik Aize-Orratz eta Batzokia elkar-teei; Aitzol, Banaiz Bagara, Hirukide, Inmakulada, Lanbide Heziketa, Las-korain, Samaniego eta Orixe ikaste-txeei; Tolosaldeko Atariari, irrati-z, in-ternetez eta paperez egin duen Au-zolan Festaren jarraipenagatik eta erakutsi duen profesionaltasunagatik. Irrien Lagunei. Eta eskerrak bai-ta ere, Tolosako Udalari, bere lanki-detza, baliabideak eta laguntza era-bakigarriak izan baitira.

Elkarrekin. Ekimen Euskaldunak Auzolanean.

egiteko eguneroko tresna bilaka-tzea ezinbestekotzat zuten parte hartu zutenek. Largabista perso-naiak hartu zuen ibilbidearen bu-rua, eta jende askok bat egin zuten martxarekin. Kantuan eman zioten amaiera giza-kateari.

Herri bazkarian, berriz, 250 per-sona inguru elkartu ziren Triangu-loa plazan, eta Tolosako elkarteen artean prestaturiko babarrunak dastatzeko aukera izan zuten. Ho-tzari aurre egiteko, jakiez gain, baz-kalondoko Zesuma taldearen dan-tzaldiak arrakasta izan zuen, eta karpa bete zuten gazte nahiz hel-duek. Azkenik, eta eguna behar be-zala amaitzeko, Kalean txarangak jauzika jarri zituen tolosarrak, afa-lordura bitarte.

IKAZTEGIETA

ABENDUAK 3, GAUR

11:00-12:30. Kartelak jarriko di-tuzte ikasleek herrian, euskararen aldeko hainbat lelorekin.
14:40. Ikasle guztiak plazara, tal-deak osatzera, eta partaide guztiak elkartzean, jolasekin hasiko dira.
15:30. *Patxi motz* eta *Behin betiko* abestiak kantatuko dituzte.
15:45. *Kafe frantses baten* abestu eta dantzatuko dute, gurasoek, ira-kasleek eta ikasleek.
Ondoren. Udalak eskainita, txokola-tea denentzat.

IRURA

ABENDUAK 3, GAUR

Goizean. Txokolatea ikastolan. Eus-karren aldeko mezuak asmatuko dituzte, eta argazkia egingo dute.
15:00. Kalejira trikitilariakin. LH-HH3ko ikasleak plazaraino jo-ango dira kalejiran eta han HHko ikasleekin elkartuko dira.

15:00. Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko pregoia irakurriko dute LH 6ko bi ikaslek.
15:20. Hiahoka taldearekin kan-tuan, abesti ezagunak kantatuz, euskara ikasten ari direnekin.
Ondoren. Gurasoen eta udalaren laguntzaz, danbolinean erreko dira gaztainak.

TOLOSA

ABENDUAK 3, GAUR

Egun osoan. Euskararen Nazioar-teko Eguneke txio lehiaketa, Gal-tzaundiren eskutik. Traola: #tlseh (Tolosa Euskararen Hiria). Helbidea: @tolosaldeataria. Esaterako: #tlseh euskaraz bizi nahi dugulako @tolo-saldeataria. Argazkiak, marrazkiak, esaldiak, bideoak... Saria: WII 1.

ZIZURKIL

ABENDUAK 3, GAUR

15:00. Euskararen Eguneke hitzar-mena sinatuko da, Otaño eskolan.

Euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatuz

250 lagunek babestu dute Tolosan eginiko manifestazioa; Villabonan bertso pilota jaialdia izan da

ERREDAZIOA TOLOSA

250 pertsona inguru elkartu ziren herenegun arratsaldean Tolosan euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde eginiko manifesta-zioan. *Tantaz tanta itsasoa gara* le-lopean Tolosako kaleak zeharkatu zituzten, urtarilaren 11n Bilbon bu-rutuko den manifestazio nazionalera-ko deia luzatuz, eta abenduaren 24an Amasa-Villabonan eta Tolosan egingo diren mobilizazioetarako he-rritarak gonbidatuz. Amasa-Villabo-nan, berriz, euskal preso eta ihesla-riei elkartasuna adierazteko helbu-ruz, *Tantaz tanta, botez bote* jaialdia egin zuten larunbatean, Behar Zana pilotalekuan. 22 urtez azpikoak, afi-zionatu mailakoak, profesional ohiak eta Euskal Herriko aurpegi ezagunak aritu ziren pilotan, eta bertsolariak ere izan ziren. Bestal-de, herritar ugari egin zuen bat az-ken ostiraleko elkarretaratzeekin: Zizurkil (23), Villabona (57), Irura (20), Anoeta (35), Tolosa (80), Iba-rra (50), Ikaztegieta (16), Berrobi (5), Berastegi (28), Lizartza (50), Gazte-lu (18), Leaburu-Txarama (11), Altzo (25) eta Amezketan (13).



Tolosan herenegun eginiko manifestazioaren une bat. I.A.



Villabonan larunbatean egin zuten bertso pilota jaialdia. M.G.

Irudia Larraul



Amaitu da Larraulgo kultur astea

Herenegungo ekitaldiekin amaitutzat eman dute La-rraulgo kultur astea. Antzinako eran egurra lantzen egon dira asteburuan, eta jostailu zaharren eta mai-luen erakusketa izan dute ikusgai. Horrez gain, ma-

gia ikuskizuna eta mus txapelketa izan dituzte, eta baita, mendi irteera eta pilota partidak. Larraulgo egutegirako argazkiak aukeratu zituzten herenegun, eta taloak eta gaztainak jan zituzten, giro onean. I.A.



Marie Brizard kanpoan itxieraren aurkako pankartak jarri dituzte. M.I.

Enpresen etorkizuna kolokan

Endaki, Marie Brizard eta Antalis enpresak itxeko arriskuan daude eta langileak greba mugagabea dira

MIKEL IRAOLA

Tolosaldeko enpresagintzak ez du garai oparoena bizi. Hainbat dira arazo larriekin aurkitzen diren enpresak: erregulazio espedienteak, kaleratzeak, zorrak... Baina arazo horien alderik ilunena, itxierarena, bereziki eskualdeko hiru enpresek bizi dute une honetan.

Urtarrilean Zizurkilgo Huyck Wangner enpresak itxieraren berri eman zien bere langileei, eta maiatzean 74 langilek lanpostua galdu zuten. Antzeko egoeran aurkitzen dira Endaki, Marie Brizard eta Antalis enpresak. Zuzendaritzak itxiera espedienteak aurkeztu zituen hiru lantegietan eta langileek oraindik mantentzen duten greba mugagabea hasi zuten. Enpresa batzuen egoera ekonomikoa txarra da, eta beste batzuen, aldiz, ona. Baina denen atzean bi gako daude: multinazionalak daudela atzean, eta lan erreformak erraztasunak ematen dizkiela erabaki hori hartzeko.

1. ENDAKI

Adunako Endaki SL enpresako langileek urriaren 14an hasi zuten greba. Sektore eolikorako, aeronautikorako, petroleorako eta ontzigintzarako pie-

zen mekanizazioan egiten du lan enpresa honek. Hiru urte eta erdiko epean, 2009ko ekainetik 2012ko azarora, lau lan erregulazio txosten jasan behar izan zituzten. Gainera, hainbat hilabetetan ez zuten nominarik jaso. Laugarren eta azken txosten horretan, enpresa itxia aurreikusi zuen zuzendaritzak. Lantegiko 18 langile kalte ordainik gabe kaleratzea aurreikusi zuten. Gainontzeko 15 langileak Lekunberrin duen Endaki 2 enpresara aldatzea proposatu zuten, abendura arte, baina, kobratu gabe.

Harrez geroztik, negozioazioan aritu dira langileak, sindikatuak eta zuzendaritza. Pasa den astean izan zuten azken bilera eta egoera «oso beltza» denaren ondorioa ateratu du Mari Mujika, LAB sindikatuko ordezkariak. «Itxiera erregistratuta dago. Alderdi ekonomikoan zulo handia du. Orain arte erakutsi ez duten dokumentazio baten zain gaude orain».

2. MARIE BRIZARD

Zizurkilan hilabete gutxitan arazo beraren aurrean aurkitzen den enpresa da Marie Brizard. Edariak ekoiztu, botilaratu, prezintatu eta banatzen ditu. Bordelen eratu zen 1755. urtean, eta sei produkzio lantegi ditu: bi Borde-

len, Aigren, Beaucairen eta Fuernmayorren (Errioxa), Zizurkilgoaz gain. Azken honek 45 urte daramatza mar txan anisaren eta Olatz patxaranaren ekoizpenean zentratuz. 2006an Belvédère talde frantsesaren eskumeneko enpresa da.

Bi aste pasatxo daramatzate greban, espero gabeko itxiera espediente zabaltu ondoren. Izan ere, enpresak egoera ekonomiko ona du. «Lana badago, eta enpresa bideragarria da, baina hemengo lana eta dirua, gaizki doazen taldeko beste enpresa batzuetara bideratu nahi dute» diote Mikel Martinez eta Igor Guadixek.

Grebak iraun duen bitarte horretan hiru bilera egin dituzte zuzendaritzarekin, baina ez dute akordiorik lortu. «Gabonetako kanpaina betean murgilduta geunden, eta grebaren ondorioz ia 800.000 botila anis egin gabe geratu dira. Produkzio horren zati bat aurrera ateratzeko greba hiru egunez altxatzea proposatu zigun enpresak, baina lanera itzultzeko gure kondizio bakarra espediente hori altxatzea da». «Ez dakigu mugimendu hauek benetakoak diren ala egoera desblokeatzeko egiten dituzten, baina enpresari behintzat min ematen ari garela argi dago» aipatu dute.

Negoizioko legezko bost bilerak egiteko epea abenduaren 15ean bukatuko da, eta adostasunik lortu ezan enpresaren esku geratuko da negoziazioarekin jarraitu ala kaleratze-

ak egiten hastea. «Borroka, zerbait lortu arte ez da amaituko» diote.

Horretarako, kotxe karabana egingo dute gaur goizean zehar. Tolosa eta inguruko beste leku batzuetan, enpresak bizi duen egoeraren berri emango duten mahai informatiboak jartzea ere pentsatu dute. Horietan gainera, itxieraren aurkako sinadura bilketa ere egingo dute. Bestalde, datozen asteotan manifestazio baterako deialdia ere egingo dutela ere aurreratu dute Martinez eta Guadixek.

3. ANTALIS

Azken kasua, berriena, Albizturko bidean dagoen Antalis enpresarena –urtetan Kanguros izan denarena– da. Pasa den ostegun arratsaldean eman zieten abixua bertako langileei eta egun hauetan lanera joaten ari diren arren, ostegunean, tramiteak iristen direnean, hasiko dute greba 39 langileek euren lanpostuen alde.

Erabaki hau, Marie Brizard-ekoaren antzera, espero gabekoa izan zen langileen partetik. «Asteazkenean bilera zuten langileek eta zuzendaritzak. Susmo txarra hartu zioten bilera hari. Kaleratzeren bat edo soldata jaitziera izango zirela pentsatu zuten, inolaz ere ez itxieraren berri emango zietenik», azaldu du Laida Zubillaga, LAB sindikatuko kideak.

Grafikagintzak, eta oro har, papergintzak urte hauetan jasan duen krisiarekin lotu du arazo hau Zubillagak:

«Paperaren eta gutunazalen erabilpena jaisten joan da, eta krisi ekonomikoarekin are gehiago. Arazo hau ez da Antalisen soilik ikusi, SAM-en ere hainbat langile kaleratu dituzte».

2001ean Antalis multinazionalak erosi zuen orduko Kanguros. Nazioartean lan egiten duten 40 enpresek osatzen dute Antalis taldea, eta gaur egun, Sequana enpresa taldearen parte da, eta erabakiak hark hartzen ditu. «Ostegunean Madrildik etorri zen zuzendaritza eta hotz-hotzean bota zuten hilabeteko epean langileak kale gorrian geratuko direla», azaldu du Zubillagak.

Zuzendaritzak ostegunean emandako txostenean, enpresa ekonomikoki bideragarria ez dela ondorioztatzen zuen, baina horren aurka ageri dira langileak: «Ulertzen dute ez dela errentagarria, baina gure ustez hiltzen utzi dute. Ez zaie Albizturko lantegia interesatzen, berez 39 lanpostu horiekin jarraitu dezaketelako. Guk enpresaren bideragarritasunean sinisten dugu, eta ez dugu itxiera planteatzen».

Bihar ekingo diote negoziazioari Donostiako Costa Vasca hotolean. «Erosoago sentitu nahi dute, baina langileen presioa nabaritu dute. Guk dokumentazio gehiago eskatu diegu, bai enpresarenak, baita taldearenak ere». Etorkizuna kolokan badute ere, langileek borrokan jarraituko dute.

Tolosaldean, azken urteetan izan diren itxieretako hainbat adibide



GOROSTIDI

Lanpostuak: Zuzeneko 157 langile, eta zeharkako 600 inguru.

Produkzioa: Papergintzarako makinaria produzitzen zuten.

Itxiera: Gorostidiko arazo ekonomikoak 2009ko urtarrilean hasi ziren prentsan agertzen, enpresak Enplegu Erregulazio Espedientea aurkeztu zuenean. 157 langiletik 137ri eragiten zien EEEK. 2010eko martxoaren 3an hartzekodunen lehiaketan sartzea eskatu zuen enpresak, zorrei buelta ezin zielako eman. Ondoren likidazio prozesuan sartu zen Gorostidi, itxieraren aurreko fasean.



AMAROSZ PAPER FABRIKA

Langileak. 120 langile inguru geratu ziren kalean azken urteetan, horietatik 105 lantegia behin betiko itxi zutenean.

Produkzioa. Papera.

Itxiera. Amaroz Paper Fabrika 1868an jarri zuten martxan, beraz, 143 urte zituen, 2012an, itxi zutenean. Tolosan zegoen azken paper fabrika zen Amarozkoa. Jarduera gaizki zegoela ikusita, saiakera egin zuten Legorretako Paperalia enpresa erosiz eta bertara joanez, tartean langileek ere dirua jarri, eta zegoen lekuan etxebizitzak egin, baina azkenean ezin izan zuten lantegia aurrera atera.



EMUA-EMUSI

Lanpostuak: Zuzeneko 65 langile.

Produkzioa: Industria makinariaren diseinua eta fabrikazioa, besteak beste, papergintza eta industria eolikoaren arloko.

Itxiera: 2012an itxi zuten enpresa. Administrazio kontseiluko kideek euren karguak 2009an utzi zituzten, hartzekodunen lehiaketa abenduan deitu zutelarik. Langileei Enplegu Erregulazio Espedientea aplikatu zieten 2009ko irailean. Hauek enpresa ez itxearen alde egin zuten borroka, Emusiri irteera eman nahian. Ezinezkoa bilakatu zutenean irtenbidea, kalte ordainen alde jarraitu zuten borrokan.



HUYCK WANGNER

Lanpostuak: 80 langile zituen eta 75 geratu dira kalean.

Produkzioa: Huyck Wangner alemaniar multinazionalaren enpresa. Lantegia, Zizurkil Goian, Altzituri industrigunean. Aurretik Perot y Cia. izenez ezagutzen zen. Paper industriarako ehun metalikoak egiten ziren.

Itxiera: 2013ko urtarrilean jakin zuten langileek zuzendaritzak lantegia itxeko asmoa zuela. Langileek auzitara eraman zuten enpresa, eta azkenean, borroka luze baten ondoren, zuzendaritzak proposatutako Akalte ordainen igoera onartu zuten, guztira 6,4 milioi euro.

Eskualdean multinazionalak duten eragina eta lan erreformak, itxiera hauen arrazoi nabarmenenak

Langile kaleratze txikiak ere lehen mailako arazo direla aldarrikatu du LABek

Endaki, Marie Brizard eta Antalis urtez urte areagotzen joan den egoera larri baten azken adibideak dira. Izan ere, arazoa lehenagotik dator: Gorostidi, Emusi, Calguinox, Urto, Perot edo Amaroz Paper Fabrika dira beste adibide batzuk. Itxiera horien faktore garrantzitsuenak krisi ekonomikoa aipatu bada ere, langileak eta sindikatuen bat datoz, arazoa «politikoa» dela esatean, izan ere, lan erreformak eta enpresa horietako gehien- goaren atzean zeuden multinazionalen jarrerak, erabakiorrak izan direla uste dute.

Azkeneko lan erreforma, 2012ko otsailaren 9an onartu zuen Espainiako kongresuak, baina kaltegarriena aurretik aplikatu diren erreformen batuketara izan dela azaldu du LABek.

«Enplegua bermatzeko erabakiak zirela esan zuten onartu zutenean, baina demostratuta geratu da ez dituela lanpostuak bermatzen. Azken bost urteetan 1.600 lanpostu galdu dira Tolosaldean, eta ondorioz, 3.205 langabe daude gaur egun.

Kaleratze guztien kasuan, hogei

eguneko konpentsazioa ordainduko lioke enpresak langile bakoitzari. Antalisekoak badu berezitasun bat. Hitzarmenaren arabera, 18 urte baino gehiago lanean daramatzatenean, urtebeteko soldata jaso beharko lukete konpentsazio gisa: «Langile asko dira urte kopuru hori daramatzatenak enpresan lanean».

Marie Brizardeko langileak ere bat datoz lan erreforma arazo honen eragile nagusienetako bat dela esatean: «Erreforma aplikatu zutenean esan ziguten enpresak nahiz eta irabaziak aurreikusitako itxi ahal izango zuela. Ez genuen sinisten eta gaur egun ikusi dugu hori horrela izan daitekeela.

Egun merkeagoa zaie langileak kaleratzea enpresei, eta multinazionalen kasuan enpresen lana beste leku batzuetara bideratzen dute. Ukrainian adibidez merkeagoa zaie».

Hori da arazoaren beste zati nagusia: multinazionalak eta erabakiak hartzeko gaitasun eza. LABek aspaldi salatu zuen Tolosaldean bizi zen egoera: «Eskualdeko enpresarik handienak, Pasaban, Aralar eta besteren bat izan ezik, multinazionalen esku daude. Inork ez dio jaramonik egin eta orain eskualdeko sare industriala abiadura handiko gainbehera prozesu batean murgilduta dago».

Papergintzan eta metalgintzan nabari izan da gehienbat multinazionalen eragina eskualdean. Papergintzako kasuan, hiruk soilik jarraitzen dute martxan. Metalgintzan gehiago izan dira itxitako enpresak.

LABen ustez, egoera horretara iritsi izanaren arrazoi nagusia, duela urte batzuk egoeraren berri jakin zu-

tenean hartu beharreko erabakiak ez hartu izana da. «Inor ez zen kezkatu egoerarekin, eta ikusi da zer gertatu den. Horren ardura nagusia, Jaur-laritzarena da, eta ondoren beste erakundeena».

Bada beste arazorik

Itxieraz gain, hainbeste baloratzen ez diren beste hainbat arazo ere badirela azaldu du LABeko Mari Mujikak: «Itxieran dira entzunetak eta prentsan gehien ateratzen direnak, baina lantegi askotan, bi, hiru edo lau lanpostu galdu dira eta ez da hain garrantzitsutzat jotzen. Horri ere garrantzia eman behar zaio».

Horretarako, jendeak kontzientzia izan behar duela nabarmendu dute langile eta sindikatuek: «egoera geroz eta nabariagoa da eskualdean. Ezer espero ez zen uneetan iritsi dira erabaki hauek, eta edonori gerta dakiok. Jendeak informatu egin behar du eta mobilizatu».



ataria
internet

Jarraitu albisteak Twitter bidez
@tolosaldeataria

Tolosaldeko Ataria
orrialdeari eman "atsegin di."



Sartu gure webgunean
ataria.info

Lumazko jaka beroa eta eroso helduentzat

IBAI MENDI KIROLAK
HERNANI 20120 (Gipuzkoa)
Tel.: 943-33 37 24
info@ibaimendi.com
www.ibaimendi.com

Prezioa 79,9€

www.mauka.eu

berria taldea

GAURKO ESKAINTZA

Kirolak

Emaitzak

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

12. jardunaldia	
Ibarra-Fuenmayor	6-6

Sailkapena

1. San Juan	26p
2. Debabarrena	23p
3. Sala Quinto	23p
4. Atenea Ikusnet	22p
5. Pinseque	21p
6. Colo Colo	20p
7. Inter Movistar	18p
8. Zierbana	17p
9. Ibarra	17p
10. Xota	14p
11. Fuenmayor	12p
12. Santurtzi	11p
13. Siguenza	8p
14. Maderas Altoaragon	4p
15. Arnedo	2p

Hurrengo jardunaldia

Pinseque-Ibarra

HIRUGARREN MAILA

11. jardunaldia	
Egintza-Bilbo	1-4
Tolosala Hirukide-Elorrio	3-2
Laskorainek, atsedenaldia	

Sailkapena

1. Sasikoa Durango	24p
2. Aurrera Vitoria	23p
3. Bilbo	23p
4. Laskorain	19p
5. Elorrio	19p
6. Egintza	18p
7. Mallabia	16p
8. Uxo	14p
9. Buruntza	13p
10. Inter Eder	13p
11. Santurtzi	11p
12. Tolosala Hirukide	9p
13. Goierri	7p
14. Soloarte	5p
15. Zarautz	4p

Hurrengo jardunaldia

Uxo-Egintza

Laskorain-Sasikoa Durango
Zarautz-Tolosala Hirukide

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

12. jardunaldia	
Bergara-Tolosa	3-2

Sailkapena

1. Anaitasuna	24p
2. Aurrera	22p
3. Berio	22p
4. Tolosa	22p
5. Ostadar	19p
6. Aloña Mendi	19p
7. Hondarribia	19p
8. Antzuola	17p
9. Bergara	17p
10. Real Union	17p
11. Beti Gazte	15p
12. Vasconia	14p
13. Getariako Keta	13p

14. Touring	12p
15. Aretxabaleta	11p
16. Hernani	10p
17. Zarautz	9p
18. Lagun Onak	6p

Hurrengo jardunaldia

Ostadar-Tolosa

EUSKAL LIGA

Hamargarren jardunaldia	
Hernani-Tolosa	1-1

Sailkapena

1. Mariño	27p
2. Gasteizko Neskak	22p
3. Santurtzi	19p
4. Bizkerre	18p
5. Eibar	18p
12. Tolosa	9p

Hurrengo jardunaldia

Mariño-Tolosa

ESKUBALOIA

LEHEN MAILA, C TALDEA

11. jardunaldia	
Indupime-Tolosa	26-39

Sailkapena

1. Eibar	19p
2. Arrasate	15p
3. Egia	15p
4. Zaragoza	14p
5. Corrales	14p
6. Casablanca	13p
7. Tolosa	12p
8. Alcorta	11p
9. Trapagaran	9p
10. Bigara Pulpo	9p
11. Santoña	8p
12. Askartza	8p
13. Urdaneta	6p
14. Indupime	1p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa-Corrales

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA

Hamargarren jardunaldia	
Bidebide Take-Egües	72-44

Sailkapena

1. Bidebide Take	8-1
2. Mondragon Unibertsitatea	8-1
3. Azkoitia-Azpeitia	6-4
4. Zarautz	6-4
5. Bioak Zerbitzuak Oke	6-3
6. Deusto	6-3
7. Atletico Sn Sn	6-3
8. Valle de Egües	4-6
9. Fundacion 5+11	5-4
10. Tabirako	4-6
11. La Peña	3-7
12. Padura	3-6
13. Arana Araberri	2-7
14. Goierri	2-7
15. Zizur	1-8

Hurrengo jardunaldia

Azkoitia-Azpeitia-Bidebide Take

Ekaitz Saralegi: «Jasotako babesa izugarria izan da; eskerrik asko guztioi»



Ekaitz Saralegi amezketarrak lau t'erdiko txapelketa handia egin du. A. IMAZ

Aimar Olaizolak lau t'erdiko finaletik kanpo utzi du Ekaitz Saralegi, 22-18ko emaitzarekin

ASIER IMAZ AMEZKETA

Ekaitz Saralegi gustura dago Lau t'erdiko Pilota Txapelketan eginda-ko jokoarekin, eta erakutsitako mailarekin. Horrez gain, txapelketaren balantzea egitarakoan, zaletuak izan ditu gogoan amezketarrak. Azken partida Labriten jokatu zuen larunbatean, Olaizola II.aren aurka. Bertan, giro berezia bizi izan zuen Saralegik: «Hasieran, aldageletatik

entzuten nituen oihuak. Izugarrizko giroa zegoen. Armailak beteta zeuden eta izugarri animatzen zuten. Bukaeran, denak zutik jarri ziren... une berezia eta emozionantea izan zen». Guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie Amezketako aurrelariak, eta txapelketa osoan jaso duen babesa «diruarekin ordaintzerik ez dagoela» gaineratu du. Aurrerantzean ere «laguntza» horrekin kontatzen jarraitu nahi du Saralegik.

Txapelketan jokatu duen azken partidari dagokionez, amezketarra gustura agertu da: «Uste baino lasaiago joan nintzen Labritera, eta gustura gelditu nintzen egindako jokoarekin; lasai jokatu nuen». Aurkariaren mailaren jakitun, partida zai-

la izango zela behin eta berriz errepikatu zuen finalerdiaren aurretik, kantxan, hori argi gelditu zen: «Banekien dena ongi egin beharko nuela, eta egia esan, gehiena ondo egin nuen, baina... lau tantoren faltan gelditu nintzen».

Ekaitz Saralegi 0-4 jarri zen irabazten Aimar Olaizolaren aurka. Ondoren, goizuetarra markagailuan gerturatu egin zitzaion, baina amezketarrak berriro hartu zuen aurea: 5-10. Olaizola II.a hutsak ahaztu eta tantoak egiten hasi zen une hortan, eta bazirudien, hamarnako berdinketa lortu zuenean, partida puskatuko zuela. Ez zen horrela izan, amezketarrak bere jokoa egiten jarraitu baitzuen. Lan horri esker, Saralegik 16-18koa lortu zuen. «Une horretan tantoz tanto joatea besterik ez nuen pentsatzen, Aimarrek zenbat jokatzten duen jakinda», dio amezketarrak. Hortik aurrera, ordea, goizuetarrak egin zituen partidako tanto guztiak.

Ekaitz Saralegi eta Asegarceren arteko kontratua 2014ko otsailean amaitzen da. Txapelketa honi esker, urtebeteko luzapena ia ziurtaturik dauka amezketarrak, baina oraindik enpresarekin ez duela hitz egin dio Saralegik: «Etortzen dena gustura hartuko dut».

Gorakoekin bat egiteko aukera galdu du Ibarrak

Fuenmayor taldearen aurka 6-6 berdindu du Ibarrak Belabieta kiroldegian; sailkapen nagusian 9. postuan daude

LAUBURU KE IBARRA IBARRA

Aitor Arevaloren mutilek puntu bakarra lortu zuten larunbatean etxean, Fuenmayor taldearen aurka. Seinako berdinketa honekin, lehen sailkatuen multzoan sartzeko aukera ederra galdu zuten moreek.

Partidako lehen gola 53. segundotan lortu zuten etxekoek, Unai Labakaren eskutik. Berdinketa, ordea, jarraian iritsi zen. Errioxarrak euren jokoa egiten hasi ziren, eta markagailuan 1-2koa lortu zuten. Uzkudunek lortu zuen ibartarren gola ondoren. Partida irekia zegoen, eta hori,

Garmenek aprobetxatu zuen, Xabi Perezen pase luze bat jaso ondoren: 3-2. Atsedenaldira iritsi aurretik, ordea, Fuenmayorrek bi gol gehiago lortu zituen, markagailua irauliz.

Bigarren zatia 3-4koarekin hasi zen. Etxekoei jokoan sartzea kosta egin zitzaien, eta ederki probestu zuten hori errioxarrek, markagailuan 3-5ekoa jartzeko. Aitor Arevalok arriskuak hartu behar zirela erabaki zuen, eta atezain jokalariairekin hasi ziren jokatzten ibartarrak. Bi aukera huts egin ondoren, kanpokoek lortu zuten euren azken gola, markagailuan 3-6koa zioena.

Hiru puntuek Ibarratik ihes egingo zutela zirudienean, moreen jokoa gora egin zuen, harmailetakozaleen laguntzarekin. Partida amaitzeko bederatzi minutu falta zirela Unai Labakak bigarren zatiko lehen gola lortu zuen etxekoentzat. Hortik minutura, berriro ere Unai Labakak, markagailua estu uztea lortu zuen. Ibartarren kapitainak jadanik hiru gol zeramatzan lehian, baina ez zen aski. Berdinketaren gola ia hiru minuturen faltan iritsi zen, eta nola ez, Labakaren oinetatik. Azken bi partidetan kapitainak joko eta sasoi ederra erakutsi du, eta horrez gain, bi lehia horietan zortzi gol lortu ditu.

Partida iraultzen saiatu ziren ibartarrak, baina aukera pare bat izan arren, amaieran markagailuak seinako berdinketa erakusten zuen; puntu banaketa, beraz.

Ehun korrikalaritik gora Anoetako eta Berrobiko herri lasterketetan

Lourdes Colomo zizurkildarrak bi probetan lehen postua eskuratu du, Anoetan bikotearekin

ERREDAKZIOA

Lourdes Colomo zizurkildarra eta Gaizka Romero oñatiarra izan ziren lehenengoak Berrobiko XI. Herri Krosean, larunbatean. Lehenengo herritarrak Igone Saldias (zortzigarren emakumezkoetan) eta Jose Luis Zabala (laugarren gizonezkoetan) izan ziren. Guztira, 62 korrikalarik parte hartu zuten proban.

Gaizka Romerok 24:15ko denbora behar izan zuen 7,5 kilometroko ibilbidea egiteko. Ibon Gonzalez tolosarra izan zen bigarrena, 24:18 eginez, eta hirugarrena, Manu Hurtado, 24:56 denborarekin. Jose Luis Zabalak 25:03 egin zuen. Lourdes Colomok 29:01 egin zuen, eta bigarren Eva Calle gasteiztarra izan zen 30:54ko denborarekin. Hirugarrena Amaia Iza ibartarra izan zen, 31:21ekin. Igone Saldias berrobikarrek 42:15eko denbora egin zuen.

Helduen aurretik gaztetxoek egin zuten korrika, 1,5 kilometro eginez. Hiru mailatan parte hartu zuten hauek, eta guztira 30 korrikalari inguru aritu ziren lasterka.

Anoetan, egun berean, 24 korrikalari inguruk hartu zuten parte Anoetako herri krosean. Bikoteka, plazatik ikastolarako ibilbideari bi itzuli eman zizkieten. Lourdes Colomo zizurkildarrak eta Oscar Rubiños anoetarrak osaturiko bikotea iritsi zen lehena helmugara. Eneida Saldias eta Andoni Saldias anoetarrek amaitu zuten bigarren, eta Jone Puras eta Mario Purasek hirugarren.



Goian, lehena, Anoetako krosa. Ondorengo biak, Berrobiko lasterketakoak. ATARIA

Ibarrako sokatira taldea hirugarren gelditu da lehen jardunaldian

Bigarren jardunaldian erabakiko da finalean nortzuk egongo diren; finala Ibarra izango da

ASIER IMAZ TOLOSA

Goma gaineko sokatira txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen asteburuan, 4X4ko modalitatean. Ibarako taldea hirugarren sailkatu zen, Sokarri eta Napurrak taldeen atzetik. Bizkaitarrek 320 kiloko lehiaketa irabazi berri dute, eta larunbatean, 300 kiloko irabazteko aukerak dituztela erakutsi zuten. Txapelketa honetan lau multzo egin dituzte, ondoren bitan banatzeko. Jardunaldi batean bi multzoko taldeak aritzen dira, eta beste egun batean, beste bi multzokoak. Bilboko

La Esperanza pilotalekuan, larunbatean, A eta B multzoko taldeak aritu ziren lehian. Ibarra bere multzoko bigarren postuan sailkatu zen, eta ondorioz, hirugarren eta laugarren postuaren lehian. Tiraldietan gailendu ondoren, moreek finalerako urrats bat eman zuten. Oraindik beste jardunaldi bat jokatu dute talde guztiek, eta bertan erabakiko da txapelaren lehian nortzuk ibiliko diren. 300 kiloko txapelketaren bigarren jardunaldia abenduaren 14an eta 15ean jokatu da, Bilbon eta Artziniegan. Azken honetan lehiatuko dira eskualdeko tiraliariak.

Finalari dagokionez, abenduaren 21ean izango da. Ibarrekin sailkapena lortzen baldin badute, etxeko en aurrean tiraldiak egiteko aukera izango dute, finala Ibarako Belabietan kiroldegian jokatu da.

Jon Irazu zizurkildarrak ordezkatuko du Rekondo leitzarra finalean


Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren finala igandean jokatu da

ASIER IMAZ ZIZURKIL

Jon Irazu zizurkildarra postu baka-rragatik gelditu zen Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren finaletik kanpo. Asteasun, urriaren 12an, zazpigarren amaitu zuen finalerdietan Irazuk, eta ondorioz, aurreko seirak finalera nola sailkatzaren ziren ikusi zuen zizurkildarrak. Horien artean Jon Rekondo zegoen, baina istripu bat medio, leitzarrek

ezin izango du finala jokatu. Bere lekuan sailkapen orokorrean zazpigarren zegoen aizkolaria joango da azken lehia horretara, eta hori, Jon Irazu da. Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren finala abenduaren 8an, igandean, jokatu da. Herri kirol jaialdia Elgoibarren antolatuta dute, 12:00etan. Aizkolari bakoitzak hamabi enbor moztu behar du: lau kanaerdiko; lau 60 ontzako eta lau oinbiko. Irazurekin batera, finalerdietan ezustekoa eman zuen Unai Otaño ibartarra egongo da, Nazabalen atzetik, bigarren sailkatu baitzen Otaño. Beste hiru finalistak, Olasagasti, Atutxa eta Azurmendi izango dira.

Hilberriak eta urteurrenak



ESKELAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info



**MANUEL MARI
GARATE AIZPURU**

- Goian bego -

*Berriz ikus arte erranik
han utzi nuen etxola
Ai, sasoin ona zoin laburra den!
iduri zuen ziola.*

Hire lagunak

Zumaia, 2013ko abenduaren 3a.



**MANU GARATE
AIZPURU**



*Zer entzuten da bidean, Manu?
jendea koplak kantari
Zuhaitzak eta harriak deika
zure amets zizelari
Zenbat arnas on eman diozun
herri honen hauspoari
Zurekin goaz, gurekin zatoz
beti gugan Manuel Mari*

Bejondeiala, Manu!

ZUMAIKO BERTSO ESKOLA

Zumaia,
2013ko abenduaren 3a

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oñartzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua (zalantzak argitzeko...): **902 82 02 01**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



Ataria-k Bai Euskarari



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aitor Mendiluzek txartela lortu du BECen kantatzeko

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean eskualdeak ordezkari bat izango du; Irazuk hirugarren egin du

JON MIRANDA IRURA / LARRAUL

Maule-Lextarren ospatu zen larunbatean Txapelketa Nagusiko azken final aurrekoa. Aitor Mendiluzekin batera, Jexux Mari Irazuk osatu zuen eskualdeko ordezkari Zuberoko hiriburuan. Ongi borobildu zuen aurtengo parte hartzea larrauldarrek. Gertuko erreferentziak erabili zituen saioan zehar eta berea izan zen kartelako bigarren ariketa puntuatue-na: *Inork ez zuen espero, baina lortu egin duzu gaiari erantzuteko*, Zuberorako geratzeko hautua egin duen laborariaren paperetik kantatu zuen Irazuk. Bosgarren Txapelketa Nagusia izan du aurtengoa eta emandakoarekin gustura geratu dela azaldu dio TOLOSALDEKO ATARIARI, «batez ere Maulen egindako saioarekin, baina finala gehiago borrokatzeko penarekin geratu naiz, hori ere bazen nire asmoa».

“Sufrituz aritu naiz bertsotan, tiraka eta ezin kokatuz”

AITOR MENDILUZE • BERTSOLARIA

“Saioarekin gustura, baina finala gehiago borrokatzeko penarekin”

JEXUX MARI IRAZU • BERTSOLARIA

Aitor Mendiluzek hilaren 15ean BECen jokatu den finalean kantatu du. Laugarren egin zuen Maule-Lextarreko final aurrekoan eta deseroso sumatu genuen bertara gertatutako bertsozaleok. Ideiak ezin ekarri ibili zen zenbait garaitan, lotuta bezala. TOLOSALDEKO ATARIARI ere horrela aitortu zion irurarrak: «orain finalean behintzat, Murgian eta Mau-



Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu Mauleko saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

len egin ez dudana egiten saiatuko naiz, bertsotan gozatzen ahaleginduko naiz». Sentsazio horiek bizi arren, hutsik ez zuen egin Mendiluzek eta ale ederrak utzi zituen Maulen. Saiorik ederrena puntutan egin zuen Agin Laburrekin batera. «Postuak eta puntuak alde batera utzi eta bertsotan egitera joango naiz», gaineratu du. «Bertso eskolan egin dudanaren erdirik ez dudala egin uste dut, eta hori baino gehiago egin behar dut».

Larunbateko final aurrekoa irabazteko faboritua Sustrai Colina zen eta pronostikoak bete zirela esan behar da. Unai Agirrerengan zeuden esperantza asko jarrita eta herna-niarrak neurri batean bertsozalea aseta utzi zuen Maulen. Erregular jardun zuen, akatsik egin gabe eta printza ederrak utziz. 691,5 ere eman zizkion epaimahaiak, nahikoak finalean sartzeko, baldin eta Aitor Sarriegirekin berdinduta geratu izan ez balitz. Bi finalaurrekoetan postuetan zein gorago geratu den begiratu zioten finalera zein pasa erabakitzeke. Beraz, Sarriegi izango da BECen bigarren aldiz.

Sustrai Colina eta Unai Agirrerren atzetik, eskualdeko bi ordezkariak etorri ziren, Jexux Mari Irazu eta Ai-

tor Mendiluze. Azkeneko bi postuetan sailkatu ziren Jone Uria eta Agin Rezola.

Honenbestez, erabakita geratu dira Maialen Lujanbiorekin batera zein zazpi bertsolari arituko diren abenduaren 15ean Barakaldon jokatu den finalean: Amets Arzaillus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi.

Asteazkenean arratsaldeko 17:00etan ATARIA irradian, Maulen entzundako bertso gehiago jasoko ditugu eta luze eta zabal aztertuko da bertsolariek bertan egin zuten lana.

• ataria@ataria.info •

Finalistak

ABENDUAK 15

Maialen Lujanbio
Amets Arzaillus
Igor Elortza
Sustrai Colina
Aitor Mendiluze
Beñat Gaztelumendi
Unai Iturriaga
Aitor Sarriegi

Agenda

DEIALDIAK

GAUR

ALEGIA. Alegiako Udaleko gizarte zerbitzuek prestakuntza ikastaroa antolatu dute: *Nola zaindu norbera burua*. Zaintzailearen formazioa bost saioen bidez landuko da, eta urtarilean emakumeen jabetuntza, Karmele Gurrutxagaren eskutik. Abenduaren 5, 10, 12, 17 eta 19an izango dira saioak 15:00 etatik 17:00etara izango dira. Interesatuak, abenduaren 4a baino lehen eman beharko dute izena 943 65 47 68 telefono zenbakira deituz asteartetik ostiralera.

ANOETA. Gabonei begira Anoeta-ko Udalak eskulanetako ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13,20, 23, 27 eta 30ean 15:00etatik 17:00etara izango da Hozpel kaleko lokalean. Izena abenduaren 10a baino lehen eman behar da udaletxean goizez edota liburategian arratsaldean.

ANOETA. Irene Arrarats, Berria egunkariko euskara arduradunak Euskararen sexismo ikusezina hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

ASTEASU. Autodefentsa ikastaroa antolatu dute emakumeentzat eta abenduaren 14ean, larunbatean, izango da. 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik

19:00etara egingo dute saioa. Asteasuko kiroldegian izango da, eta interesatuak izena eman beharko dute abenduaren 9a, astelehena, baino lehen kiroldegian bertan. Doan izango da.

TOLOSA. DYA Gipuzkoak antolatuta abenduaren 16 eta 17an Oinarrizko Bihotz-biriken Suspertze ikastaroa eta DEA (Kanpoko Desfibriladore Automatikoa) ekipoen erabilerako ikastaroa izango da Tolosan. 18:30etik 21:00etara izango da DYako Ordezkaritzan, Larramendi kalean. Aurretiko osasun ezaguerik edukitzea ez da beharrezkoa. Matrikularen kostua 80 eurokoa da, etai-ikastaroaren eduki guztiak dituen eskuliburua sartzen da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Farmaziak

Gaur
Tolosa:
Egunekoa eta gauekoa:
Olarreaga, 1.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

Zorion Agurrak



Urte askoan!

Gure Lur neska handiak abenduaren 1 ean, 2 urtetxo egin zituen. Zorionak Lur!!! Etxekoak!



Zorionak!

Ibai Goenaga Fajardo. Larunbatean 5 urte bete zituen. Muxu bat, familiaren eta bereziki Unaxen partetik!